

Kaixo, kaixo:

Zelan zabiltzate? Iritsi da udazkena, udazkena iritsi da! Hostoak arboletatik jausten hasi dira eta egunak motzagoak dira. Konturatu zarete inguruak marroiz, laranjaz, gorriz bete direla?

Lau urtaroak: udazkena, negua, udaberria eta uda. Bakoitza


bestearengandik bereizten dituen ezaugarriekin.


Urtaroak! Nik oso gustuko ditut, sasoi batean eta bestean gauza ezberdinak egiten ditugulako, horrela ez daukagu aspertzeko denborarik. Gauza guztiek daukate bere momentua. Udan hondartzara joaten gara, neguan, berriz, elurrezko panpinak egiten ditugu. Udazkenean, bufanda janzten dugu, baina udaberrian, ai, udaberrian loreak biltzen ditugu!





Jakin nahi duzue urtaro bakoitzean zer gehiago egin daitekeen? Eta urtaro bakoitzean zuhaitzak nola egoten diren? Eta nolakoa den eguraldia? hodeiak, eguzkia, ekaitza?



Bueno, bueno, urtaroen munduan sartuko gara? Prest?

Lorentxo










PUZZLEA 1: PIEZAK



PUZZLEA 2: OINARRIA

A. URTAROAK

→ Puzzlea: Udazkena


UDAZKENA


HOSTOAK ZUHAITZETATIK ERORTZEN DIRENEAN
ESNATZEAN GAUA DENEAN,
EURIA EGITEN DUENEAN,
ESKOLARA BUELTATZEN ZARENEAN,
JERTSEA ERABILTZEN HASTEN ZARENEAN,
EGUZKIAK ERRETZEN EZ DUENEAN,
TXOKOLATE BEROA INOIZ BAINO GOXOAGO DAGOENEAN,
OHEAN GUZTIZ ESTALTZEN ZARENEAN,

UDAZKENA DA...

... LEIHOTIK BEGIRATZEKO GARAIA...
BEROA ETA HOTZA ELKARTZEN DITUEN URTAROA.














ARBOLA



HOSTOAK



ESKUAK

